

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	ZORU, PARETA ETA SABAIEN GARBIKETA, TRATAMENDUA ETA MANTENTZE-LANAK ERAIKIN ETA LOKALETAN	Iraupena	30
Kodea	MF0972_1		
Lanbide-arloa	GIZARTE, KULTURA ETA KOMUNITATEKO ZERBITZUAK		
Lanbide-eremua	Gizarte-arreta		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Barruko altzarien garbiketa	Iraupena	30
	Kristalen garbiketa eraikin eta lokaletan		30
	Makineria erabiliz garbitzeko teknika eta prozedurak		60
	Eraikin eta lokaletan gainazal eta altzariak garbitzeko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		80

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0972_1 ZORUAK, PARETAK ETA SABAIK GARBITZEA ERAIKIN ETA LOKALETAN

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1 Esku-hartze motei lotutako garbiketa-lanak definitu eta ezartzea, higieua balioestea eta jardueratik eratorritako arriskuak aintzatestea, lantokira egokitzeko.
- EI1.1 Garbitu beharreko paramentu, zoru eta sabaietan sortu eta pilatzen diren hondakin- eta zabor-motak deskribatzea, eta zikinkeria-moten arabera sailkatzea.
- EI1.2 Garbiketa-motak aztertzea, behar duten esku-hartze motaren arabera.
- EI1.3 Egin beharreko garbiketa-motak bereiztea, aldizkakotasunaren arabera.
- EI1.4 Garbiketa baten kasu praktiko batean:
- Zikinkeria-, garbitasun-, desinfekzio- eta higieua-kontzeptuak definitzea, eta egin beharreko garbiketa-lanekin erlazionatzea, jarduera-testuinguruaren arabera.
 - Garbiketa-jardueratik eratorritako arriskuak aztertzea.
- A2 Paramentuak, zoruak eta sabaiak estaltzen dituzten materialak identifikatzea eta haien garbiketarekin lotzea.
- EI2.1 Material-motak ezagutu eta bereiztea, haien trinkotasunaren arabera eta laginak oinarri hartuta: gogorak (terrazoa, granittoa, marmola edo beste batzuk) eta bigunak (plastikoak, egurra, ehunak edo beste batzuk).
- EI2.2 Paramentu, zoru eta sabaien ezaugarri fisikoak ondorioztatzea, haiek osatzen dituzten materialak balioztatuta.
- EI2.3 Material bakoitzaren abantailak eta eragozpenak ezartzea, haiek zaindu, tratatu eta garbitzean kontuan izateko.
- A3 Garbitzeko produktuak espezifikazioen arabera hautatu eta erabiltzea, eta haien eraginkortasuna eta erabilgarritasuna egiaztatzea.
- EI3.1 Ingurumena kaltetzen ez duten produktuak identifikatzea lurrerako, paretetarako eta sabaietarako.
- EI3.2 Garbitzeko produktuak haien aplikazioen arabera sailkatzea, eta dituzten propietateak, abantailak eta erabiltzeko moduak azaltzea.
- EI3.3 Garbitzeko produktuen etiketak eta segurtasun-fitxak interpretatzea eta haien erabilgarritasuna eta beharra baloratzea.
- EI3.4 Egin beharreko lanerako produktu egokiena hautatzea, eta aukera hori arrazoitzea.
- EI3.5 Kasu praktiko batean: garbitzeko produktua manipulatzeko eta dosifikatzea, haren erabileren arabera.
- EI3.6 Produktuak biltegitratzeko kondizioak deskribatzea, haien ezaugarriak kontuan izanda.
- A4 Paramentuak, zoruak eta sabaiak garbitzeko tresna espezifikoak hautatzea, espero den garbitasuna lortzeko gai direnak, haien erabilera zehaztea eta erabiltzeko baldintza egokietan kontserbatzeko modua azaltzea.
- EI4.1 Kasu praktiko batean: garbiketako tresnak deskribatzea, haien funtzioak, erabilera-arauak, manipulazioari lotutako arriskuak eta erabilerako mantentze-lanak azalduz
- EI4.2 Hautatu diren tresnak arrazoitzea garbitu beharreko material-motaren arabera, eta aplikatzeko prozedurak errespetatzen direla bermatzea.
- EI4.3 Garbiketako tresnak kontserbatzeko prozedurak azaltzea, eta beharrezkoak diren balioztatzea.
- A5 Paramentuak, zoruak eta sabaiak estaltzen dituzten materialak garbitzeko prozedurak identifikatzea, eta testuingururako eta jarduerarako egokienak zehaztea.

- EI5.1 Garbiketa-teknikak azaltzea eta erabiltzen diren material-motarekin erlazionatzea: ekortzea, hezean ekortzea, xurgatzea, garbitzea, hautsa kentzea.
- EI5.2 Paramentuak estaltzen dituzten materialen ezaugarrien arabera hautatzea teknikak.
- EI5.3 Lanaren eta tratatu beharreko gainazalaren arabera hautatzea garbiketa-teknika. EI5.4 Kasu praktiko batean: lan-eremutik pertsonak igarotzen direnerako jarduera-jarraibideak azaltzea eta haien segurtasuna balioztatzea. EI5.5 Profesionalen funtzioak ezartzea eta garbiketa-tekniken aplikazioarekin erlazionatzea.
- A6 Garbitu beharreko espazioak aldeztatik egokitzeko egin beharreko urratsak deskribatzea, tresna eta objektuen, ateen, leihoen, aireztatzeko irekiduren kokapena eta ingurunea prestatzea kontuan hartuta.
- EI6.1 Espazioak aireztatzeko modua deskribatzea, jardueraren segurtasuna kontuan hartuta.
- EI6.2 Higiezina aireztatzeko segurtasun-protokoloak aztertu eta balioztatzea, eta haien arabera jarduera ezartzea.
- EI6.3 Lan-zentroak, atek, leihoak eta irekidurak irekitzeari/ixteari dagokionez, aldeztatik ezarrita dituen baldintzak adieraztea.
- EI6.4 Garbitu beharreko espazioa egokitzeko kasu praktiko batean:
- Laneko inguruneke airea berritatzeko atek, leihoak edo paramentuetako beste edozein irekidura irekiz.
 - Esku hartzeko eremuan enbarazu egiten duten objektuak badaude (ekortzeko-xurgatzeko-garbitzeko traba egiten dutenak), handik kentzea.
 - Gure esku-hartze dela-eta ireki ditugun ate, leiho edo irekidura guztiak itxita daudela egiaztatzea.
- A7: Paramentuak, zoruak eta sabaiak estaltzen dituzten materialak garbitzeko prozedurak definitzea, nahi dugun emaitza lortzeko tresnak eta produktuak zehaztea, eta emaitza lortu dela egiaztatzea.
- EI7.1 Jarduera-eremua identifikatzea garbiketa bat antolatzeko, eta erabili beharreko prozedura eta teknikak zehaztea.
- EI7.2 Pareta eta sabaietako goialdearen irisgarritasuna balioztatzea, aldeztatik egin beharrekoak zehazteko.
- EI7.3 Kasu praktiko batean: esku-hartze bat egiaztatzea, gainazal guztietako zikinkeria kendu dela egiaztatzeko.
- EI7.4 Paramentuak, zoruak eta sabaiak estaltzen dituzten materialak garbitzeko kasu praktiko batean:
- Garbiketarako informazio erabilgarri edo garrantzitsua ateratzea, jarduera-testuinguruari behatuz.
 - Espero diren emaitzak lortzeko zereginaren sekuentzia eta gutxi gorabeherako gauzatze-denbora zehaztea.
 - Paramentua estaltzen duen material-mota identifikatzea, eta garbiketa-teknika haren arabera hautatzea eta doitztea.
 - Beharrezkoa denean, tresna eta produktua hautatzea, ingurumena kaltetzen ez dutenak.
 - Produktua prestatzea erabilera- eta dosifikazio-argibideei jarraituz eta oinarrizko segurtasun-printzipioak kontuan hartuz.
 - Erabiltzen diren tresnak erabilera-baldintza egokietan izatea eta haien beharra aitortzea.
 - Teknika, tresna eta produktua aplikatzea, eta espero diren emaitzak lortzen direla egiaztatzea.

Edukiak

1. Oinarrizko garbiketa-eragiketak

- Kontzeptuak:
 - o Garbitasuna
 - o Zikinkeria
 - o Desinfekzioa
 - o Garbiketa-prozesuetako hondakin- eta zabor-motak
- Material bakoitzerako garbiketa-prozesu egokiak:
 - o Material gogorak
 - o Material bigunak
- Aukeraketa txarra egitearen eragozpenak.
- Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuak erabiltzea
 - o Produktu-motak:
 - Garbigarriak: disolbatzaileak, xaboiak, detergenteak, xanpuak, hautsa harrapatzeak, inkrustazioak kentzekoak, koipegabetzaileak, amoniakoa, desinfektatzaile espezifikoak eta, oro har, komuneko desinfektatzaileak, lixiba.
 - Distira-emaileak: desugertzaileak, beiratzatzaileak, zigilatzaileak.
 - Produktu espezifikoak: kristal-garbigarriak, metala garbitzekoak.
 - o Produktuak irizpideen arabera erabiltzea:
 - Dosifikazioa. Dosifikagailuen erabilera.
 - Toxikotasun-kasuetan jarduteko moduak.
 - Osasunerako arriskuak.
 - o Etiketak interpretatzea. Garbitzeko eta desinfektatzeko produktuen ontzietan adierazten diren oharrak.

2. Garbiketa-prozesuen garapena

- Teknika bakoitzera egokitutako garbiketa-jardueren sekuentziazioa: Ekortzea, Hezean ekortzea. Xurgatzea. Garbitzea. Hautsa kentzea.
- Lan-inguruneak egokitzea.
 - o Ingurunea prestatzea eta ordenatua izatea.
 - o Garbiketa-lanak egitea langileak beren lanpostuetan daudela edota inguruetan daudela (pertsonak igarotzen diren bitartean).

- Garbiketa-lanak egiazatzeko teknikak.
- Laneko Planaren segimendua.
 - o Jasotako argibideak interpretatzea eta gauzatzea.
- Lantokiko prozedurak eta arauak ezagutzea.
- Garbitzeko tresnak erabiltzea eta kontserbatzea.
 - o Identifikazioa: zoruatarako, paretatarako, sabaiatarako.
 - o Garbiketa-tresnen erabilera.
 - o Tresnak kontserbatzeko prozesuak.
 - o Etxetresna elektrikoaren erabilera: erraz erabiltzen diren xurgagailuak.

3. Hondakinen kudeaketa eta tratamendua

- Hondakin-motak: hirikoak, industrialak, ospitaleetakoak, nekazaritzakoak, abeltzaintzakoak, basogintzakoak eta meatzaritzakoak.
- Hondakin horien tratamendua: birziklatzea, berrerabiltzea, balioztatzea eta ezabatzea.
- Hondakinak bereizteko, manipulatzeko eta biltegitzeko prozesuak.

4. Laneko arriskuak prebenitzeko neurrien aplikazioa eta segimendua

- Arriskuen identifikazioa.
- Garbiketa-jardueretatik eratorritakoak.
- Lantokiari dagozkionak.
- Norbera babesteko ekipoak identifikatzea eta erabiltzea.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK
--

Sartzeko irizpideak

Ez dago sartzeko eskakizunik

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Gainazal eta altzariak garbitzea eraikin eta lokaletan.